

ZAZPI-IZARAK, ZAZPI-ÁUNTZAK, IDI-OHOINAK,
ITHOHOINAK EDO IDI- UHUIÑAK DEITZEN DĪREN
IZAR ANDANA HARTAZKO EĒRESIETĀRIK BATZU.

Izararte garbi edo gau- alde argietan ikhusgai dela, bai ahal dakizue, zēru gāraiko iphar aldeāt behatzen delārik izar andana ezagutuenetārik bat, bethi eta bethi itzul-ingurūka dabilana.

Oraikoan aiphatzekoa den izar andana hark badu bertze izar andana batekin eite ezin ukhatuzkoa; baitezpada beāz behar da jakin badiřela iphar aldean, gurē heuskal-herietārik ikhusten ahal dīren aurkientzetan, bi izar piļo bardin zazpi izaretakoak. eta bardin ere bethi itzul-ingurū itzul-ingurūka diabtltzanak.

Izaretan barna, hein batetařainoko jakitatea dutenek hetaz hunela dijoite, lehembizikōrik: Gūri egoitzatzat eman izan zaikun lur han itzulika dabilan bezalatsu iguskiařen ingurūnean, bertze asko ikhusgailu miragarien artean, badīre, aise gau ortzaizkietan hautemaiten ahal dīrenak, bi izar ařalde, izen berbetsuaz izendatzen dīrenak: hetařik lehembizikoāri eraiten zaijo *zazpi-izarak*; nor-nahi ohartzen ahal da izar ařalde hau bethi badabilala — jo-zak ingurū! jo-zak itzuli! — belhi ilzul-ingurūka bēre bide markatuan, guře mundu huntako iphar. aldean daudezen leihor eta itsasoak, urumetik bada ere, behinere gelditu gabe, ingurūnatzen dituela. Haritzeko da!

Bigarenekorik, izaretan jakintsunek badijoite: Izar andana lehembiziko hunen azken izar ederaři eraiten diote *Iphareko* — *-izara* (edo *Norteko-izara*) ; bai-eta-eře eřakhasten daukute guře mundu hunek baladuka orgetakoen idūriko haza bat — ipharetik hegoařat — beře bi burūetarik urunago *lihoakiokeena*, oratza lūze baten pare, sūsēn ikhusten dirēn izaretarāinokoan, iphareko buřuak jo lezakeela eta sista edozoin orduz *Norteko-izara*. Hor tařik athēratzen ahal da munduko hazařen bi buřuetařik batak bethi jotzen ahal duelarik *Norte-izara*, eztela izar han beře lekhu ezagututik nehoiz-ēre aldāratzen ez ezker, ez eskuin,

nehorāt-eře; beřaz haur ere eran behar da izar huni, *Iphareko-izaraři* edo *Norteko-izaraři*, inguřuka badabiltzkiola beře bertze sei izar lagunak.

Hirurgarenēkorik haur ere badijoite: Zazpi- izaretako lehembiziko andanāren ingūruka ibiltzeak dīrade bertze izar piļoāren inguřuka ibiltzeāren aldean hainitzez řipiago; beřaz biřtan, da bigaren izar andanak zabalago egiten dituela beře itzul-inguřuak. Bigaren izar andana huni diote emaiten izena, heuskaldun laphurdikoeķ, nafarōa-behērekoek, subērokoek eta nafarōa-garaiko zeimbeitek — beřen tokiko hizkuntzeen āřabēra — batzueķ *ithohoinak*, betze batzueķ *idi- uhuiņak*, bertze batzueķ *zazpi-āuntzak* eta gainēratekueķ, geūre ustez, gain huntan dauntzaten deithūretārik bat edo bertze.

Hunelatan bada, bigaren izar andana huntaz mintzatzerāteko gaijak gařamatzala, haste hastetik aithortu behar dugu, ja berogoi bat urthe baduela aditu ditugula hemen emaiten dīren solhas-taldi edo eřesi izar-piļo hartazkoak, baita bertze asko eře, geřo han eře eran behar dugu, aditu ditugun bezala hunat badakharzki-gula; beřaz dīren bezala har detzatzue. . . edo utz.

Irakhurtu ahal duzue herdarāzko libuřu batzuetan, heuskal-herietārik urunřko, nombeitko bazteretako gizon artzain zeimbeitek — nork orāino zergatik eztakiela — izar andana maiz eta arduřa gabaz zakhusaten hartaz aiphamen egitekotan ziřelārik, aspaldi danik bazijoitela *Hartz-zarāpļo* izigari baten itsūřa bazadukala, eta, egiazko hartzatat baitzadukaten, hartzařen izena eman eře ziotela berē mintzairēetan.

Horela mintzo ziřelako mendea eta ordua, gizon artzain hekieķ, nombeit eran behar da gorāřko dohala, eta badaiteke gizon artzaingoāren hastapeneko egune tan zela; geřoztikako mendetan, bada, noizpait eře, gizonak, berē behar premiařkoāreķin hatean, lur- launtzārat emanak-se ziřela non-edo-non, izar andana hāři beřāři atzeman zioten — ohartuřik ezen bethi khuri badabilala — arkēra edo kariota (firilarik gabeko) baten aintzuřa edo itsūřa. Bai ahal dakizue hastapeneko kariotak, edo karosak, ořaiko lardai edo sarga aphaindu batzuen antzorat eginak ziřela; heķieři eraiten zaijote heuskal-herietan — non eře-baita etah an —: lardaijak, leřak leřiak, narasak, baita asko bertze izenik eře.

Biřtan da heuskal-heri mugetako populu bakhofřak, eta muga hetārik urun daudezenak bardin, beře jakitateāren edo beře aintzinekoen sinhesteāren āřabērako deithūra emaiten diotela aiphatu izar piļoāři.

Huna bada herdal-herietako izenetārik zeimbeit naste-braste.

Heuskaldunen *izar idi-uhuiñēri* edo *zazpi-áuntzēri* eraiten diote, edo lehenago eraiten zioten, lehortarek, han hemenka, bēre herdāretan barna, hunelāse

Latinezkoan: *Ursu(s), Arctos major, Fera major, septemtriones* < eran nahibaita *zazpi idiak* >.

Grekezkoan: batzuek zijoiten *Arktos (hartāza)* eta bertzeek *Amaxa* < *kariota, orgak* >.

Frantziako, Italiako, Espainiako, Portugaleko, baita Belgika eta Suisako mintzaīreetan bardintsu baitīrade bai abēre gaitz haren, bai izar andana hekien izenak, huna non dīren leroz lero jariaik, bat banazka bēren tokian tokiko arābēra. Abēreaz hunela dijoite :

Ours, orso, oso, urso, ourss, uors;

Izar pīlo gain gainekoaz dijoite, frantses herdārean:

Petite-ourse < eran nahi baita : *hartza-eme-tipia* >; eta azpiko izar andana deitzen dute mintzaija bērean :

Grande-ourse < eran nahi baita : *hartza-eme-handia* > ; Gain huntan aiphatu eskualdeetan, bi izar pīlo hekien izenak, eman dīren izenen khideak dīrela aski da hemen eraitea :

Azkhenik aiphakidena hau da : India (Asia, munduko zathi guziek ezagutzen dutenean), Sanskrita deitzen den hizkuntza zahar, aspaldi suntsituan, lehen bazijoiten izar andana ornen handitako hari : *arktos, arkos, edo rksha*.

Bagagozi izen hōriek gehientsuak elkaretārat' tūrik, ērakhusterā̄t emaiten daukuten āriaz bertzalde, ez othe duten heuskarāzko izen khideārekin — eran nahi baita *hartza* hitzārekin — ahaidetasun ber-bēra?

Hōri ikhuskizun diagokulārik, bai ahal dakizue zertsu den *Hartza*, abēre latzgarienetako hura ; bai-eta-ēre hāren bizitzeko moldea ikhasi dukezue zerbait goiti-behiti. Hambat hobe zēren ezta geūre sēdea hartaz bertze hitz alferik banatzea. Haūse da bakharik hemen eran behar duguna, heuskaldun gehientsuek bēren arteko solasetan abre gaitz hūrā izendatzen dutela *Hartāza* edo *Artza*; norbeitek bertze deithūrā heuskarāzkōrik ezagutzen othe dio?

Sehetasun eta galde hoikietaz lekhōra, huna nola eraiten dīren heuskal-herietako toki batzuetan *zazpi-izaren, zazpi-áuntzen, zazpi-idien, Ithohoinen* edo *Idi-uhuiñen* ērēsiak.

Zuzen den bezala lehenbizikōrik, eta brankan, jartzen dugu s̄ubēro mendietako bazkagietan, edo alhapidetan gaindi, artzainek, hain elhe ederetan, atheīfātzen dutena.

IZARETAN GAÑEN PLANTATUĀRIK DIRĀDEN
IDIUHÛINETAZKO ĒRESIA.

« Aspaldi diala, Uskal-heriko mendi-pe batian, bizi zuzun et̄se-ondo batetango nausi bat, beĕre emazte, beĕre seme-alhaba eta beĕre mis̄kandiekila.

« Etsē-ondo nausi haur labaki atheĕazale hunā zen, eta lur funtsez onsāto aberatsu zelakoz, bazauzkatzun abel' lari eli batzu eta hetan barne buztaritako idi zeimbeit.

« Behin bada, gai ulhun-ulhuna zen batez, uhuiñek, baruku barenian nulazpeit sarthūrik, ebatsi zeitzuen han estekīrik ziaudetzun idi biga ejerenetarīk.

« Bihārāmenian, goiz alderāt jeiki onduan, jelkhitzerat zohe-larik, burzagi haina ohartu baitzen barukuan egin zejuen uhuiñtzaz eta ikhusi beitzitien bēre Abel' lari bigen eta uhuiñ bigen herastruak, oihustatu zizun bēre mithila eta igori zizun, eranik zohela fite fitezka, uhuiñ heen ondotik, eta hatzamanik khen zeitzuela idiak, huĕrak numbeit lekhotu beino lehen. Haleta uste zizun hek hatzaman-gei zutiela bēre mithil zalheak.

« Abiatu zen bada, eta juhan zen mithila, eta zalhe-zalhe igāren zen larez gaintik larez gaintik, hala ēre eta huĕra luzaluzazki ebiliagatik, ezpaitzen et̄se-ondualat ordu hunez utzultzen, burzagiak bērantetsīrik igori ziozun beriz, hāri ondotik jaraik lekion, bēre neskatua.

« Hantik laster ĩhur ohartu gabetarīk elkhi zuzun eta juhan zuzun, harastru heen usnāra sūsen, etsenko tsākura.

« Bihārāmenaguan argizkorialatko ezpeitzeijon ĩhundik nehor ageĕri, abiatu zen bada et̄se-ondoko nabusia bēra eta haize kuĕrumulia uduĕri zohelarīk eraiten zizun beĕre beithan: *Baliman numbeit-ēre hatzamanengo ahal ditizit!*

« Ebili zen bada huĕra ēre bēre buĕru, eta ebili, eta eibli, heinan ez zian ĩhur ikhusi, eta ez zutian bēre abel' lariaĕ ĩhun ēre edīrein, eta hambestenārekila etsi-ordu uduĕritu zejjon.

« Azkeneĕrāt bada, frango khesutuĕrik eta eiñhetuĕrik beitzen, phiztu zuzun burzagi lur-athĕratzaile huĕra, baila samurturik jari zuzun, eta ordunkotz begietarīk su-t̄sīnkerak bezala elkhitzen zeitzuelarīk, hasi zuzun zinkha, arneguka, zijoiĕjarik : *Alhatu-rik Goiĕhena! Bai ahal ziazte, nun ere baitziazte eta han, oro ondizatu! Bai, aren bai !*

« Hulako elhesta izigariak zitizun ahotik urthukiten eta hanbestefāranok uak izan zirēn harēn ahapaldi madarīzionezkoak nun eraiten baitzuten guṛe aintzinekoek ez zirēla pharkatzen dirādenetarīk.

« Bazaudez zer gerthatu othe zeijon galdez? zer gerthatu zeijon nahi duzie jakin? Huna zer gerthatu: Šinko-šainak jo zitizun hek oṛo, arunt, eta manatu zeijuen ebil litezen, handik aintzina, lur atheṛātzaile burzagia, harēn neskatua, etsenko tšakura, hāren mithila, bi uhuiñak eta idi paṛeka, bethi eta bethi hetarīk bakhofza bestetārīk bēreīs; bethi eta bethi bata besteāren undo undožka, eta alkhar ezin hatzamanezkako heinean; bethi eta bethi ebil eta ebil, ebil eta ebil, ebil eta ebil.

« Bada hunela jo eta bethikotzat ebiltarī izaitialat jo zitizunetik bertanē, gure Šinko-šainak ezari zitizun ortzian gainti, edo zelietako gaintian zazpi izaretan.

« Zijoiten bada aintzina arāītzinakoeḱ hunelaṣe plantatuṛik izan zirēla: Beinazpein, bi idiak altzinako lehen bi izaretan gaintik; gero, bi uhuiñak heen undoko bi izaretan; mithila hetarīk landanko izarian; neskatōsea bigereneḱoṛik den izar pakhantian; aldiz tšakura khantu khantian den izar tšōpitean; eta oṛōren azkhen eta azkhenik lur atheṛāzale burzagia bēra ezari umen zizun zazpigereneḱoṛik den izar bakhantiaz gaintik.

« Gehiagokoṛik hau eṛe bazijoiten guṛe arāītzinakoeḱ: Zoṛigaitzezko bizitiar, horela mundu huntarīk aizatuṛik zeṛu gaṛaintialadrano igāren zutuzun huṛak, hala hala eta bethi hala bada-biltzala, iṛaiñ behar ziela menderēn mendetako mendetan, mundu tšipiñi hunen urhentzialadrainokoan. »

Adi zazue bada guziek: jaun, andre, muthiko eta neskatšak, *Idi-ohoinen* eṛesia hala-halakoa balimbazen guṛe aintzinagokotzat guṛetzateko eṛe hala izango dela, bai eta halabiz!

Huna, dugun trenka egitekoa, bigareneḱoṛik hemen aldīto huntan eraiteko dena eta nork-nahik adituko ahal duena Zaṛaitzu Otsāgabiako artzainek aiphatzen duten bezala bēre elhestaetan.

Halatan Otsāgabiako artzainek izar andana aski maiz izendatu den hura bēre makhilaz eṛākhusten dutelaṛik hunela mintzatzen dirāde.

« Aṛā, aṛā! zazpi áuntzak ta arzaia: arzaiak makilkaldusātzen ditu áuntzak. Aleta, aṛa aṛā! aṛi da arzaia, fisti-fasta galtz egiten! »

Hora bada, Aspaldi duela adituñikako bi eñesiak non dirèn: ahal bezain sūsen eran ditugu; hetaz gain, nahi badute heuskaldunek eta bertzeek jakin zer den orāikoño huntan gogoan nahi-ala-ez darābilaguna, huna laburzki beñe hezurretan sūt emana:

Nor edo nor izanengo othe da — mendeak ala aroak hartarat darāmala — hausartzia handiz eranen duenik, heuskāraz ala herdarāz, aspaldiko eñesi hoñiek, numbeitik noizpait eñaiki ondoan, beñenturik daduzkatela heuskaldunck?

Hean! Ba othe da norbait dakikeenik eta dijoikeenik garbiki, geure aintzinakoen solhas jostagari hoikietaz dohala, zerbeit funtsezkoñik?

DARRICARERE : k. o.

